

ARABIERA-TXINERA-ESPAINIERA- JAPONIERA-PORTUGESA

EZ DA INOLAKO ZIURTAGIRIRIK EMANEN

BETEBEHARRAK

- 2023an 14 urte izatea edo betetzea.

2022-2023 IKASTURTERAKO INFORMAZIOA

Matrikula **INTERNET** bidez egingen da.

OSO GARRANTZITSUA:

- Lekuak ikasleak matrikulatu ahala beteko dira.

MATRIKULA INTERNET BIDEZ EGITEKO PROZEDURA

- Eskolako web-orrian sartu (<http://eoi.educacion.navarra.es/>) eta "Matrikula" botoian klikatu, ondoren "Matrikula beste hizkuntzak" botoian klik egin.
- Lehenengo pantailan, datu pertsonalak sartu behar dira. Prozesuarekin jarraitu ahal izateko, nahitaezko eremu batzuk bete behar dira.
- Eskatutako datuak bete ondoren, plaza eskaintza dagoen pantailara sartuko da ikaslea. Han, hizkuntza, maila eta taldea-ordutegia aukeratu beharko ditu.
- Programak zein taldek dituzten ikaspostu libreak erakutsiko ditu. Orduan, ikasleak zein talde nahi duen aukeratu behar du. **GARRANTZITSUA:** Hautatu baino lehen, begiratu arretaz ordutegia zein den.
- Talde eta ordutegia aukeratu, ikasleak sistemak seinalatzen dion bidetik jarraitu beharko du matrikula egiteko. Tasa ordaindu artio ez du ikaspostua ziurtatua izanen. Ordainketa Internet bidez egingen da, banku txartelaren bidez, **matrikula egiten den egunean berean**. Kasu berezietan, hurrengo egunean Eskolako Administrazian ordaintzen ahalko da banku txartelaren bidez.
- **DOKUMENTAZIOA:** ikasleak **gehienez 2 lanegun izanen ditu**, Nortasun Agiriariaren, Atzerritar-Identifikiazien Zenbakiaren edo pasaportearen fotokopia bidaltzeko. IHEO honetako beste matrikula prozesu batzuetan parte hartu eta emana duenak ez du berriz ekarri beharko.

Ikasle batek matrikula egin eta 2 lanegun epean tasa ordainduko ez balu edota matrikulatzeko eskatzen zaion dokumentazioa ekarriko ez balu, matrikula deuseztatu egingen litzaioke eta ez litzaioke dirurik itzuliko. Orobat, matrikulak ez du baliorik izanen, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondotik dena zuzen dagoela berretsi artio.

MATRIKULA EGUTEGIA

MATRIKULATZEKO EGUNAK: Urriaren 2tik 8ra
ORDUTEGIA: Urriaren 2ko 9:00etatik urriaren 8ko 23:59 arte.

OSATUTAKO TALDEAK

Urriaren 9an, 16:00etan argitaratuko dira. Talde horietan matrikulatu diren ikasleen klaseak ordutegiaren arabera hasiko dira.

TALDE ALDAKETA (osatutako taldeetan ikasposturik libre balego):

Bertan behera gelditu diren taldeetan matrikulatuta dauden ikasleendako bakarrik

- Urriaren 10ean. Prozesu hau aurrez aurre Administrazian egingen da, 9:00etatik 14:00ak arte eta 16:00etatik 19:00ak arte.

IKASPOSTU LIBREETAN MATRIKULATZEA

Aurreko matrikulatzeko prozedura bukatutakoan oraindik ikaspostu liberrik balego, epe berri bat irekiko da.

- IKAPOSTU LIBREEN IRAGARPENA: urriaren 11n, 9:00etan.
- IKASPOSTU LIBREETAN MATRIKULATZEKO:
 - INTERNET BIDEZ: Urriaren 11ko 9:00etatik urriaren 26ko 23:59 arte.

TASAK

132,20 €.

IKASTURTEAREN IRAUPENA

30 ordu.

Ikasturte hasiera: urriaren 16an (astelehen-asteazkenetako taldeak), urriaren 17an (astearte-ortzegunetako taldeak).
Ikusi egutegia.

Ikasturte amaiera: urtarrilaren 17an (astelehen-asteazkenetako taldeak), urtarrilaren 11n (español taldeak) eta urtarrilaren 18an (portuges taldeak).
Ikusi egutegia.

OHAR GARRANTZITSUAK

- Gutxieneko **IKASLE KOPURUA** talde bakoitzean: 10. Gutxieneko kopurura ailegatzen ez diren taldeak bertan behera geldi daitezke.
- Matrikularen dirua ondorengo kasuetan bakarrik itzuliko da:
 - Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialak ikastaroa ez ematea erabakitzen bada.
 - Ikastarora joateko ezintasuna justifikatzen bada:
 - Ikastaroak irauten duen bitartean lan kontratua sinatzeagatik
 - Norberaren edo zuzeneko familiako kide baten ospitaleratzeagatik.

Bi kasuetan idatziz justifikatu beharko da.
GARRANTZITSUA: Matrikulari uko egiteko eskaria bakarrik onartuko da baldin eta uko egite horren ondorioz, taldeko ikasle kopurua dela eta, taldea bertan behera gelditzen ez bada. Ikastaroa hasi ondoren ez da dirurik itzuliko.
- Eskolan Baliabide Gela bat dago, bertan kontsulta gela, ikus-entzunezko gunea, multimedia gela eta mailegu zerbitzua aurki ditzakezu.